

IZOTZ JAUREGIKO KAFETEGIAREN ALOKAIUARI BURUZKO ARAUDIA

Erreserba egin duen pertsonak kafetegia erabiltzeko arau hauek irakurri eta onartu beharko ditu, erreserbatutako espazioa erabili ahal izateko. Arau horiek une oro eskuragarri daude Izotz Jauregiko harreran, eta www.huartepalaciodehielo.com webgunean ere ikus, irakur edo deskarga daitezke.

1. Erreserba gauzatzeko, beharrezkoa izango da Izotz Jauregiko harreran kafetegiko aretoaren alokairuari dagokion tasa ordaintzea eta arduradunaren izen-abizenak, NANA, telefonoa eta posta ematea.
2. Erreserbak asteazken eta ostiraletarako egin ahal izango dira, saio librean ordutegiaren barruan, eta erreserbaren baimena gehienez 2 ordukoa izango da.
3. Erreserba egiten duen pertsonak adin nagusikoa izan beharko du.
4. Erreserba, gutxienez, nahi den eguna baino astebete lehenago egin beharko da, eta erreserba egin ondoren, 5 egun lehenago bakarrik ezeztatu edo aldatu ahal izango da data. Epearen barruan data aldatu edo ezeztatu ezean, ez da inolako truke edo itzulketarik egingo.
5. Kafetegiaren erabilera bertako altzariak errespetatuz egingo da. Erreserba egiten duen pertsona bertan dauden pertsona guztien eta lokalean sor daitezkeen kalteen arduraduna da.
6. Ezinbestekoa izango da uneoro adinez nagusi bat egotea, hurren portaeraz kargu hartu eta arduratuko dena.
7. Erreserba egiten duen pertsona izango da lokalera eraman dezakeen janariaren eta edariaren arduraduna, elikagai-intoxikaziorik izanez gero.
8. Arduradunak kafetegiko giltza bat jasoko du eta instalazioko langile batek gela erakutsiko dio.
9. Instalaziotik irten aurretik, erreserba egin zuen pertsonak giltza itzuli beharko du eta gela ikuskatuko du instalazioetako langile batekin, dena garbi eta egoera onean utziz, aurkitu zen bezala.
10. Jatekoa eta edatekoa kafetegian kontsumitu beharko da, eta ezin izango da izotz-pistan jan edo edan.
11. Mahai guztietan ezinbestekoa da mahai-zapiak erabiltzea.
12. Kafetegian, une bakoitzean baimendutako gehieneko edukiera errespetatu beharko da, eta ezin izango da baimendutako edukiera baino pertsona gehiago sartu.
13. Beharrezkoa izango da osasungintzak markatutako higie- eta distantzia-neurriak, indarrean daudenak, betetzea.
14. **Erabat debekatuta dago:**
 - Kafetegian maskotak sartzea.
 - Erretzea eta beste edozein droga mota kontsumitzea.
 - Baloi, pilota, bizikleta, gurpil-oholekin eta antzekoekin jolastea kafetegian.
 - Altzariak kalera ateratzea.

UHARTE IZOTZ JAUREGIKO KAFETEGIAREN ERRESERBA

RESERVA CAFETERIA DEL PALACIO DE HIELO HUARTE

ERRESERBA DATA / FECHA DE LA RESERVA:
- Eguna / Día:
- Ordua / Hora:

** Ospakizunetarako, soilik asteazken eta ostiraletan / Para celebraciones, solo es posible los miércoles y viernes.*

ARDURADUNAREN DATUAK / DATOS PERSONA RESPONSABLE:
- Izena / Nombre:
- Abizenak / Apellidos:
- NANA / DNI:
- Telefonoa / Teléfono:
- Korreoa / Correo:

- ✓ Uharte Izotz Jauregiko kafetegia alokatzeko indarrean dagoen araudi erreserba onartzen dut. / Acepto la normativa actual del alquiler de reserva de la cafetería del Palacio de Hielo Huarte.

Sinadura / Firma:

Uharten, _____(e)ko _____aren _____(e)an.

En Huarte, a _____ de _____ de _____